



## EUSKAL ZUZENBIDE ZIBIL BERRIA: FAMILIARI ETA OINORDETZARI BURUZKO IKUSPEGIA (3. aldia)

### INFORMAZIO OROKORRA

---

IKASTURTEA: 2018-2019

ARLOA: Gizarte eta Zuzenbide-Zientziak

KREDITUAK: 3 ECTS(\*)

MATRIKULA TASA: 250.02 € (elkargok kideak ) 290,10 € (elkargoko kideak ez direnak)

ZUZENDARITZA AKADEMIKOA: Gorka Galicia Aizpurua

### AURKEZPENA

---

Zuzenbide zibilaren alorrean EAEak, Estatutuko 10.5 artikuluan jasotako eskumena baliatuz, osatu eta argitaratu dituen arauen azterketa sakona egitea du helburu ikastaroak; horietatik, bereziki, 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa, eta 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa. Hain zuzen ere, ikastaroan aztertuko diren arazoaren artean, batik bat, familia-ekonomiari eta oinordetza-sistemari dagozkien erakunde juridiko-pribatuetan ematen direnak izango dira.

### ZURE BILA GABILTZA

---

Aipatu 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, eta 7/2015 Legeak, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoak, familiaren eta oinordetzaren inguruko harremanetan erabakiak hartzeko bidegurutze berria ezarri die euskal hiritarrei. Ikastaro honek tresna juridiko berri horien ezagutza eguneratua eta arazo praktikoen erantzuna eskaintzen die abokatutza-lanetan eremu haietan arazoak konpontzen diharduten profesionali.

### BALDINTZAK

---

Zuzenbideko Gradu edo Lizentziatura

---



## IRAKASKETA

---

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2018/10/04-tik 2018/11/29-ra

EMATEKO TOKIA: Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa (Duque de Mandas, 11, baxua 20012 – Donostia )

HIZKUNTZA: gaztelania

## INFORMAZIO BULEGOA

---

ORGANO PROPOSATZAILEA: UPV/EHUko Zuzenbide Zibila Saila

HELBIDEA: Manuel Lardizabal, 2. 20018 Donostia-**San Sebastián**

TELEFONOA.: 943 01 8077 /943 01 5236

POSTA ELEKTRONIKOA: [cursocv.ddc@ehu.es](mailto:cursocv.ddc@ehu.es)

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du